araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak aitortza egin dio "Lan ta lan" azokari, artisautza sustatu eta hari ikusgarritasuna emateko egiten duen ekarpenagatik

"Lan ta lan", Artisau elkarteak antolatua, hogeita hamar urte bete zituen iaz

Unai Beltrán eta Loli Cordero, 2026ko Blas Arratibel Artisautza Lehiaketako irabazle

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 23a.- Arabako Foru Aldundiak gaur aitortza egin dio "Lan ta Lan" Arabako Gabonetako Artisautza Azokari, azken hogeita hamar urteotan artisauen lana sustatu, ikusarazi eta merkaturatzeko egin duen ekarpen nabarmenagatik. Aitortza hori 2026ko Blas Arratibel Artisautza Lehiaketako sari banaketaren ekitaldian egin da. "Lan ta lan", Artisau elkarteak antolatua, berriro irekiko ditu ateak abenduaren 4an, Probintzia plazan.

Ekitaldi honetan bertan ezagutarazi dituzte, halaber, Blas Arratibel Artisautza Lehiaketako 40. edizioaren irabazleak. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak urtero ematen duen sari honek Euskadiko eta Trebiñuko Konderriko artisautza lanik onenen aitortza egiten du. Hona hemen irabazleak: Unai Beltrán de Lubiano eta Loli Cordero. Saritutako lanak eta gainerako piezak Ignacio Aldecoa Kultura Etxean egongo dira ikusgai abenduaren 7ra arte.

Mar Dabán Enplegu, Merkataritza eta Turismoko foru diputatuak zuzendu du arratsalde honetan Kultura Etxean egin den sari banaketaren ekitaldia. Han artisauen lana goraipatu du; izan ere, haien eskutik bizirik irauten dute tokiko kulturak eta belaunaldiz belaunaldi transmititu diren ofizio tradizionalek. “Pieza bakar eta errepikaezin bakoitzean beren bizitzaren zati bat jartzen duten profesional hauen lana aitortu eta nabarmendu nahi dut”.

«Arabako herritarrei gonbita egin nahi diet gabon hauetan artisau lanak erosi eta oparitzera, gure artisauen lantegi eta dendak bisitatzera, eta, jakina, Lan ta Lan azoka ezagutzera, artisautza oparitzea bakarra, berezia eta desberdina den zerbait oparitzea baita. «Eta artisautza zaintzen dugunean, gure gizartea ere zaintzen dugu, gure nortasunari eusten diogu eta kalitatearen aldeko apustua egiten dugu», azaldu du.

Unai Beltrán izan da artisau izaera aitortua duten pertsonentzako A modalitateko irabazlea, Urki lanagatik. Haritzez eta intxaurrez eskuz landutako kulunka aulkia da, inolako metalezko piezarik gabe modu naturalean mihiztatua, eta etengabeko mugimendu horretan lasaitasuna eta oreka iradokitzen

José Luis Jiménez Barragán – jljimenez@araba.eus - 945 18 19 01 – arabapress.eus

dituena. "Urki egurra, ahalegina eta lasaitasuna da. Pieza honekin, barealdia irudikatu nahi dut berehalakotasuneko eta presazko gizarte honetan", azaldu du ebanista honek.

Unai Beltránek bigarrenez lortu du sari hau; izan ere, 2025eko edizioan ere saritu zuten, B modalitatean.

Blas Arratibel Artisautza Lehiaketako epaimahaiak aho batez erabaki du Urki lanari A modalitateko saria ematea, "piezaren oreka bikainagatik, akabera zaindu eta ikusgarriagatik, kalitate handiko taila eta leunketa lanagatik, eta osorik egurrez egina egoteagatik, metalezko mihiztadurarik erabili gabe". Sari hau 3.625 eurokoa da.

"Lan ta lan" azoka

Loli Corderok B modalitateko saria jaso du, oraindik artisau izaera ofizialki aitortuta ez duten pertsonentzat gordetako kategorian, Gaua lanagatik: edertasun garbi eta xumea duen ontzi esmaltatu bat "Erronka handia izan zen, gauzatzeko ausardia handia eskatzen zuen pieza: Gaua, gau lasaia, sakona, misteriotsua. Esmaltea ere bat dator itxurazko soiltasun horrekin", azaldu du zeramikariak.

Lan honi dagokionez, epaimahaiak oraingoan ere aho batez erabaki du saria merezi duela, profesionaltasun handia erakusten duelako, barrualdeko patina landu eta zainduagatik bereziki, eta tamaina handikoa izan arren pieza bakarrean eginda dagoelako. Saria 1.625 eurokoa da.

Arabako Foru Aldundiak, Blas Arratibel sariak banatzeko ekitaldian, ‘Lan ta lan’ Gabonetako Artisautza Azokari eta hura antolatzen duen Artisau elkarteari aitortza egin die, azken hiru hamarkadotan lana sustatu, ikusarazi eta merkaturatzeko egin duen ekarpen nabarmenagatik. Mónica Martín Artisau elkarteko lehendakariak jaso du aitortza sari hori.

"Azokak berebiziko garrantzia du sektorearentzat, Gabonak opari egunak baitira. Gainera, bezeroekin zuzenean harremanak izateko parada izaten dugu, eta gure lana nolakoa den, materialen jatorria zein den eta pieza bakoitza nola egiten dugun hurbiletik azaltzeko ere bai», adierazi du Mónica Martínek.

‘Lan ta lan’ azokak 1996an egin zuen lehen edizioa, Espainia plazan, eta 1999an Probintzia plazara lekualdatu zenetik arabarrei gure artisauen lanik onenak eskaintzen die bertan. Aurten 31. edizioa izango duen azokak abenduaren 4an zabalduko ditu berriz ateak, arabarrei zein bisitariei zurezko, larruzko, ehunezko, bitxigintzako eta ilustrazioko pieza paregabeak eta produktu kosmetiko naturalak eskaintzeko.

"Aitortza hau guztiz merezia da; izan ere, azoka honek hogeita hamar urtez dihardu sektoreari erakusleiho aparta eskaintzen artisau lanbideak eta lanak erakutsi ahal izateko, eta Gabonen bueltan, salmentarako garai ezin hobean, lanak saldu ahal izateko», adierazi du Aitortza egin nahi diegu Lan ta lan azokari hasiera eman ziotenei, baita urtez urte azoka sendotzea eta oraingo 31. ediziora iritsi arte jarraipena izatea posible egin dutenei ere”, adierazi du Mar Dabán diputatuak.